

## KONTZEPTU-TEKLATUA

Ordenadorea irakaskuntzan eta beste zenbait arlotan sartzean topatu den arazo nagusienetako bat, gaur egungo periferikoak izan dira. Sarrerarako periferikoetan adibidez, teklatu alfanumeriko normalak badu eragozpen handi bat: agindu edo instrukzioak memorizatu egin behar dira eta horrez gain hauek karakterez karaktere teklatu. Hau izan da hain zuzen ere pertsona asko, profesionalak barne, ordenadorea erabiltzeko uzkur agertzearen arrazoia.

Beste muga handi bat pantailako aurkezpenak dira. Irakaskuntzan koloreek, grafikoez eta irudiek berebiziko garrantzia dute eta zaila izaten da ordenadore bidez irudi errealeak lortzea.

Bi muga hauek kontzeptu-teklatuaren bidez gaindi daitezke. Teklatu honen gainazala launa da. Beraz ez dauka teklaturik eta karaktereak eduki ordez irudiz osatzen da. Irudi hauek teklatuaren gainean ipintzen diren kartulina batzuetan daude irudikatua eta programa bakoitzarentzat desberdinak dira.

Horrela, anatomia irakasteko programa bat erabiltzean, pantailan ikusi nahi den gorputz-zatiaren izena idatzi gabe nahikoa izango da kontzeptu-teklatuan gorputz-zati horren irudia sakatzea.

Teklatu hau sistema berria da inola ere eta erosoaz izateaz gain, informatikaz ezer ez dakitenez ordenadoreari beldurra galtzea sor dezake.

## MACLINK PLUS/TRANSLATORS

Ordenadorea hain hedatua dagoen une honetan, sarri aurkitzen da bat ordenadore edo sistema desberdinetan sortu eta landutako fitxategi, dokumentu, datu-base edo kalkulu-orriren batekin lan egin beharrean.

Fitxategien formatua eta datuen antolaketa oso lotuak daude sortu dituzten sistemekin eta orain arte behintzat ezinezkoa gertatzen zen sistema desberdina zuten beste ordenadore eta aplikazioetan erabiltzea.

Duela gutxi (TAK, Data Viz produktuen banatzaileak, Macintosh-entzat erreminta berria eman du eza-gutzera. Erreminta honen izena *MacLink Plus/Translators* da eta aipatzen genuen oztopo edo muga hori gainditzera dator.

Macintosh ordenadoretan DOS formatua duten 3,5 hazbeteko disketak Apple File Exchange erremintaren bidez atzi daitezke. Ondoren, *MacLink Plus/Translators* fitxategien edukina eta formatua automatikoki itzultzeko 100 konbinazio desberdin eskainiko ditu.

Fitxategi bat irakurtzean sortua izan den aplikazioak ezarritako formatu-arauak izango ditu kontuan eta ondoren fitxategiaren kopia berria idatziko du; erabili behar duen aplikazioak ulertzeko modukoa.

## POWERSAVE: TENTSIO-ETENEN AURKAKO SEGURTASUNA

Ordenadoreekin lan egiten dugunoi behin baino gehiagotan gertatu izan zaigu argia joan eta ordurarte sartutako informazioa galtzea.

Zuhur izan gaitezke eta orduerdiero edo orduero informazioa gorde, baina hala eta guztiz ere ez dugu arazoa erabat konponduko; gutxien uste dugunean gerta bait daiteke korrante-etena.

*Powersave* PCentzat atera den barne-txartel bat da eta tentsio-etena sortzen den une berean jartzen da funtzionamenduan. Korrante elektrikoa itzultzen denean ordenadoreak batere daturik galdu gabe berrezartzen dira. Kopia- eta berrezartze-sistema automatikoa da nahiz eta une horretan PCa erabiltzen ez aritu.

Korrante elektrikoan akatsen bat detektatzen duenean, *Powersave* PCaren RAM memoria osoa kopiatzen du diskora. Korrantea berrezartzen denean, sistema lehengo egoera berberara itzultzen da automatikoki.

## IMAGE GRABBER 2.0. MACINTOSH-EN PANTAILATIK KOLORETAKO IRUDIAK HARTZEKO AKZESORIOA.

Macintosh ordenadoreen erabiltzaileei irudiak pantailatik zuzenean hartzeko posibilitatea eskaintzen duen akzesorioa da *IMAGE GRABBER 2.0*. Pantailatik hartutako irudia programa batetik bestera kopia daiteke. Irudia MacPaint fitxategi batean gorde daiteke, edota Pict formatuko fitxategi batean; eta nahi izanez gero inprimagailura ere bidal daiteke zuzenean.

*IMAGE GRABBER*ek kolorearekin egiten du lan (32 bit/pixel) eta monitore desberdinekin bateragarria da. Irudiak kapturatu edo harrapatzeko bi metodo eskaintzen ditu: standard Grab eta Timed Grab.

Lehenengoak, standard grab metodoak, irudiaren zati errektangeluar bat hautatzeko aukera ematen du. Timed Grab metodoak berriz, erabiltzaileak zehaztutako denbora-tartea pasatu ondoren pantailan ikusten den gutzia hartuko du.

